




Euskararen egoera
Iparraldean

La situation de la langue basque
en Pays Basque de France





2006an, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak antolatutako laugarren inkesta soziolinguistikoaren emaitzak.
Résultats de la 4^e enquête sociolinguistique réalisée en 2006 par le Vice-Ministère à la Politique Linguistique du Gouvernement basque en partenariat avec l'Office Public de la langue basque.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Euskal Herriko laugarren inkesta soziolinguistikoa antolatu du 2006 urtean. 1991, 1996 eta 2001 urteetan egin zen bezala, inkesta Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean eramana izan da.

Telefonoz egindako galdeketa horiei esker, hizkuntza-gaitasunaz eta euskararen erabileraz informazioak bil daitezke, euskaraz hitz egiten den eskualdeetan.

Iparraldean, Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) Euskal Gobernuak lagundu du inkestaren gauzatzearen urrats desberdinetan, bi erakundeek garatzen dituzten mugaz gaindiko harremanen kari. Laginaren finkatzearen ardura INSEE erakundeari emana izan zaio ; 16 urte baino gehiagoko 2000 jende galdezkatua izan da. Inkestak hiru eskualde aztertzen ditu (1991an finkatuak izan ziren eskualde horiek) : BAM eskualdea (BAM hiri elkargoa + Hiriburu + Bokale), BAB-tik haratagoko Lapurdi eskualdea (kostaldea eta barnekaldea) eta Nafarroa Beherea/Zuberoa eskualdea.

Dokumentu honen helburua inkestaren datu adierazgarrienak eta ondorioak azpimarratzea da, EEP-ren Hizkuntza Politika Proiektua oinarritzat hartuz. Emaizta zehatzak eskuragarriak dira Euskararen Erakunde Publikoan.

La 4^e enquête sociolinguistique du Pays Basque a été organisée en 2006 sous la responsabilité du Sous-Ministère à la Politique linguistique du Gouvernement basque d'Euskadi. Comme pour les trois éditions précédentes de 1991, 1996 et 2001, l'enquête a été organisée sur la Communauté Autonome d'Euskadi, la Navarre et le Pays Basque de France.

Les enquêtes, réalisées par téléphone, permettent de mesurer en particulier pour chacun des territoires où est parlée la langue basque, le niveau de connaissance et d'utilisation de la langue.


Pour le Pays Basque de France, l'Office Public de la Langue Basque (OPLB) a accompagné le Gouvernement basque dans les différentes étapes de réalisation de l'enquête dans le cadre des relations partenariales transfrontalières développées par les deux institutions. L'échantillonnage a été confié à l'INSEE et 2 000 personnes de 16 ans et plus ont été interrogées. L'enquête se décline sur trois territoires d'analyse (établis en 1991) : le secteur BAB (Communauté d'agglomération BAB + commune de St Pierre d'Irube + Boucau), le secteur Labourd hors BAB (côte basque et Labourd intérieur) et le secteur Basse-Navarre/Soule.

Ce document vise à présenter les données les plus significatives de l'enquête et les principaux enseignements que l'on peut en retirer au regard du Projet de Politique Linguistique de l'OPLB. Les résultats détaillés sont disponibles auprès de l'Office Public de la langue basque.

2006an, Iparraldeko biztanleen %22.5-a elebiduna da, %8.5-a elebidun hartzailea eta %68.9-a erdalduna.

En 2006, au Pays Basque de France, 22,5% des habitants sont bilingues bascophones, 8,6% sont bilingues réceptifs et 68,9% non-bascophones.

Hizkuntza-gaitasuna. Iparraldea, 2006 (%)
La compétence linguistique. Pays Basque de France, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2006 / Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Hiztegia

- Euskaldun edo elebiduna : euskara ulertzen eta mintzatzen duen pertsona
- Elebidun hartzailea : euskara ulertzen baina mintzatzen ez duen pertsona
- Erdalduna : euskara ez ulertzen ez mintzatzen duen pertsona


Glossaire

- bascophone ou bilingue bascophone : personne comprenant et parlant la langue basque
- bilingue réceptif : personne capable de comprendre la langue mais pas de la parler (ou simplement quelques mots)
- non-bascophone : personne ne comprenant ni ne parlant la langue basque.

Iparaldean, Nafarroa-Behereak eta Zuberoak euskaldunen ehunekoen handienak dauzkate ; kopuru absolutuak so eginez berriz, BAM-tik haratagoko Lapurdi da euskaldun gehien daukan eskualdea.

La Soule et la Basse Navarre constituent le secteur du Pays Basque de France où le pourcentage de bascophones est le plus important ; en valeur absolue, les bascophones sont les plus nombreux en Labourd hors BAB.

Hizkuntza-gaitasuna eskualdearen arabera. Iparraldea, 2006 (%)
La compétence linguistique en fonction du secteur. Pays Basque de France, 2006 (%)




	Iparraldea Pays Basque		BAM BAB		Lapurdi (BAM gabe) Labourd (hors BAB)		Nafarroa Beherea eta Zuberoa Basse Navarre et Soule	
	kop/nbre	%	kop/nbre	%	kop/nbre	%	kop/nbre	%
Elebidunak Bilingue	51 800	22,5	8 800	8,8	24 700	25,6	18 200	55,5
Elebidun Hartzaileak Bilingues réceptifs	19 800	8,6	5 400	5,4	10 900	11,3	3 500	10,7
Erdaldunak Non-bascophone	158 600	68,9	158 600	85,8	60 900	63,1	11 100	33,8

Euskararen galerak jarraitzen du Le déclin de la langue basque se poursuit

| Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan ez bezala, **Iparaldeko euskaldunen galerak jarraitzen du**, bai ehunekoaren aldetik, bai eta ere kopuru absolutuen aldetik.

| A l'inverse de ce que l'on peut observer en Navarre et dans la Communauté Autonome d'Euskadi, la population de bascophones en Pays Basque de France **continue de diminuer**, tant en valeur absolue qu'en valeur relative.

Euskaldunen ehunekoaren bilakaera lurraldeka (1991-2006)
Évolution du pourcentage de bascophones par territoire (1991-2006)



| 1996 eta 2006 urteen artean, elebidunen kopurua :

- Apaldu da Iparraldean, 56 000-tik 51 800-ra,
- Emendatu da EAE-n 443 200tik 557 600-ra,
- Emendatu da Nafarroan 42 100-tik 56 400-ra

| De 1996 à 2006, le nombre de bascophones est passé en 10 ans :

- De 56 000 à 51 800 en Pays Basque de France,
- De 443 200 à 557 600 dans la Communauté Autonome Basque,
- De 42 100 à 56 400 en Navarre




Bi faktore nagusik eragiten dute beherakada hau :

- Euskaldunak gero eta zaharragoak dira, elebidunen ehuneko handienak adin-tarte zaharrenetan daude (euskaldunen %64-a 50 urtetik gorakoa da)
- Era berean, euskara haur denboran jaso dutenen eta gaur egun mintzatzeko gai ez diren pertsonen kopurua (7 000 hiztun 2006an), euskara haur denboran jaso ez dutenen eta geroztik ikasi dutenen kopurua (4 000 hiztun 2006an) baino askoz handiago da.

La baisse du nombre de bascophones en Pays Basque de France est alimentée par un double phénomène :

- Le vieillissement des bascophones dont la proportion est plus forte dans les classes d'âge les plus élevées (64% des bascophones sont 50 ans et plus)
- Dans le même temps, le nombre de personnes ayant reçu la langue basque étant enfant mais ayant perdu au fil du temps la capacité de la parler (7 000 locuteurs concernés en 2006) sont nettement plus nombreuses que les personnes n'ayant pas reçu la langue basque étant enfant mais l'ayant apprise depuis (4 000 locuteurs concernés en 2006)



Beherakada honen ondorioz, euskararen erabilera apaldu da :

- 10 urtez, euskara frantsesa bezainbat edo gehiago baliatzen duten pertsonen ehunekoa 3 punduz apaldu da : 1996an, biztanleen %13-a zelarik, gaur egun, %10.3-a da.

La poursuite de ce déclin se traduit de fait, par une utilisation décroissante de la langue basque :

- en dix ans, la proportion de ceux qui utilisent le basque autant ou plus que le français a baissé de près de 3 points, de 13% en 1996 à 10,3% aujourd'hui.



Joera-aldaketa bat 16-24 urte arteko adin-tartean ①

Un retournement de tendance pour les 16-24 ans

Lehen aldiko, eta Nafarroan eta EAE-n aurreko inkestetan agertzen zen bezala, **euskaldunen ehunekoak berriz gora egiten du 16-24 urte arteko adin-taldean.**

Aldaketa hori bereziki nabarmena da BAM-tik haratago Lapurdin (biztanleen %20,6-a euskalduna da 16-24 urte arteko adin-tartean ; %14,6 25-34 urte arteko adin-tartean eta %18,3, 35-49 urte arteko adin-tartean), bai eta ere BAM-en, baina neurri ttipiago batean.

Eskualde euskaldunenean, Nafarroa beheera/Zuberoan, 16-24 urte artekoen ehunekoak ttipiena izaten segitzen du.




Pour la première fois, et à l'instar des évolutions observées lors des enquêtes précédentes en Navarre et dans la Communauté Autonome d'Euskadi, **la courbe du pourcentage de bascophones par classe d'âge repart aussi à la hausse en Pays Basque de France pour les 16-24 ans.**

Cette évolution est particulièrement nette sur le secteur Labourd hors BAB (20,6% de bascophones chez les 16-24 ans ; 14,6% chez les 25-34 ans et 18,3% chez les 35-49 ans), mais aussi dans une moindre mesure sur le secteur BAB.

Sur le secteur le plus bascophone, Soule/Basse-Navarre, les 16-24 ans restent encore proportionnellement moins bascophones que toutes les autres classes d'âge plus élevé.

Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Iparraldea, 1996-2006 (%)
Pays Basque de France, 1996-2006 (%) - Évolution des bilingues en fonction de l'âge



*Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jauriaritza. 2006 /
 Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006*

Iparralde osoa kontutan hartuz, 16-24 urte arteko adin-taldeko elebidunen ehunekoa (%16.1), 25-34 urte arteko adin-taldekoarena baino **5 punduz azkarragoa da.**

Pour l'ensemble du Pays Basque de France, le pourcentage des bilingues du groupe des 16-24 ans (16,1%) est de **5 points supérieur** au groupe d'âge plus âgé des 25-34 ans (11,6%).


Joera-aldaketa bat 16-24 urte arteko adin-tartean ②

Un retournement de tendance pour les 16-24 ans

Lagin osoa kontutan hartzen delarik, euskararentzat, galerak irabaziak baino askoz handiagoak badira ere, nabarmentzekoa da gazteen taldearen kasuan, joera aldatzen dela, hots irabaziak galerak baino handiagoak direla.

Si pour l'ensemble des personnes enquêtées, les pertes pour la langue basque sont plus importantes que les gains, le groupe d'âge des jeunes est le seul groupe où les gains sont plus importants que les pertes.

Euskararen galerak eta irabaziak adinaren arabera.
Iparraldea, 2006 (%)
Les gains et les pertes pour la langue basque en fonction de l'âge.
Pays Basque de France, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz. 2006 /
Source: 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Hiztegia

- Galera : haur denboran euskara jaso duen pertsona, eta gaur egun, ulertzeko eta mintzatzeko gaitasunak galdu dituena
- Galera partziala : haur denboran euskara jaso duen pertsona, eta gaur egun, mintzatzeko gaitasuna galdu duena baina ulertzeko gai dena
- Irabazia : haur denboran euskara jaso ez duen pertsona, baina gaur egun, ulertzeko eta mintzatzeko gaitasunak dauzkana
- Irabazi partziala : haur denboran euskara jaso ez duen pertsona, baina gaur egun, euskara ulertzen duena


Glossaire

- perte : personne ayant reçu la langue basque étant enfant et n'étant plus capable de la parler ni de la comprendre
- perte partielle : personne ayant reçu la langue basque étant enfant et n'ayant plus la faculté de la parler mais pouvant la comprendre
- gain : personne n'ayant pas reçu la langue basque étant enfant et étant capable de la comprendre et de la parler
- gain partiel : personne n'ayant pas reçu la langue basque étant enfant et étant capable de la comprendre

1991. urteaz geroztik eramanak izan diren lau inkestetako emaitzak alderatuz geroz, Iparraldeko biztanleen hizkuntza-gaitasunaren bilakaera XX.garren mendean era daiteke :

L'analyse comparée des résultats des quatre enquêtes menées depuis 1991 permet de décrire l'évolution de la compétence linguistique des habitants du Pays Basque de France tout au long du XX^e siècle :

Elebidunen ehunekoaren bilakaera, sort-urtearen arabera
Évolution du pourcentage de bascophones selon l'année de naissance



Iturria / Source : Erramun Bachoc

NB : sort-urteen finkatzea :

- 2006ko inkestaren 16-24 urte tarteko adin-taldea har dezagun. Gazte horiek 1982 eta 1990 urteen artean sortuak dira.
- Adin-talde honen erdiko urtea 1986 urtea da. Dagokion elebidunen ehunekoa lotzen zaio, hots %16,1-a.
- Ber desmarta errepikatzen da, lau inkestaren adin-talde guzientzat ; ondorioz, ondoko grafikoa eratzten da.

NB : détermination des années de naissance :

- Considérons la classe d'âge 16-24 ans de l'enquête menée en 2006. Il s'agit de jeunes nés entre 1982 et 1990.
- La date médiane de la classe d'âge est 1986. On y attribue le pourcentage associé, soit 16,1%.
- La même opération réitérée pour l'ensemble des classes d'âge des quatre enquêtes précédentes permet de réaliser la courbe ci-dessus.

Euskararen sustatzearen aldeko jarrera baikorra orohar

Euskararekiko eta egoerarekiko iritziak eta ikuspegiak aztertzen dituzten galde batzuk oinarritzat harturik, inkestak informazio batzuk ekartzen ditu, euskararen sustatzearen arloan biztanlegoak dauzkan jarrerei buruz..


Euskara sustatzeari buruzko jarrerak nagusiki aldekoak dira Iparraldean, bai eskualdeen arabera bai eta ere hizkuntza-gaitasunaren arabera. 2001-eko inkestak antzeko emaitzak iragartzen zituen.

A partir d'un certain nombre de questions relatives à la perception et au regard qu'ont les habitants de la langue basque et de sa situation, l'enquête fournit aussi des informations utiles sur l'attitude de la population concernant la promotion de la langue basque.

Les habitants du Pays Basque de France y sont majoritairement favorables, quelque soit le secteur géographique concerné et le niveau de compétence linguistique.

L'enquête de 2001 présentait des résultats à peu près similaires.


Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak. Iparraldea, 2006 (%)
Attitudes concernant la promotion du basque. Pays Basque de France, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2006 /
Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Une attitude majoritairement favorable à la promotion de la langue basque

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak, eskualdearen arabera. Iparralde, 2006 (%)
 Attitudes concernant la promotion du basque en fonction du secteur. Pays Basque de France, 2006 (%)



Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2006 /
 Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera. Iparralde, 2006 (%)
 Attitudes en faveur de la promotion du basque - Pays Basque de France, 2006 (%)

Interesa / Attitude	Elebidunak / Bilingues	Elebidun hartzaileak / Bilingues réceptifs	Erdaldunak / Non-basquophones
Très favorable / Oso aldekoa	26,2	13,6	3,9
Favorable / Aldekoa	48,5	44,5	24,4
Ez alde ez aurka / Ni pour ni contre	22,5	36,9	47,8
Ez alde ez aurka / Défavorable	2,3	4,9	20,6
Oso aurkakoa / Très défavorable	0,5	-	3,4

Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza. 2006 /
 Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Les résultats de cette 4^e enquête sociolinguistique présentent la double particularité d'être à la fois lourds de gravité car ils confirment une fois de plus le déclin de la langue basque, et à la fois porteurs d'espoir car la tendance s'inverse avec les plus jeunes. Face à l'avenir, ces résultats mettent en évidence deux défis majeurs à relever :


Confirmer et consolider la réappropriation de la langue basque par les jeunes générations.

Le pourcentage de bascophones au sein de la population née dans les années 70 et 80 a atteint des niveaux particulièrement bas, à moins de 15% d'une classe d'âge.

De par la progression observée en 2006, les jeunes nés dans les années 90 présentent un niveau de compétence linguistique similaire à celui de leurs aînés nés dans les années 60.

Cette progression est sans conteste le résultat du développement de l'apprentissage de la langue basque à l'école, toutes filières confondues.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Iparralde, 2006 (%)
La compétence linguistique en fonction de l'âge. Pays Basque de France, 2006 (%)




Iturria: IV. Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jauraritza. 2006 / Source : 4e enquête sociolinguistique. Vice-ministère de la politique linguistique. Gouvernement basque. 2006

Mais, malgré cette progression, le taux de bascophones chez les 16-24 ans (16,1%) reste encore trop insuffisant pour pouvoir garantir la pérennité de la langue.

Le développement de l'apprentissage du basque à l'école devra impérativement se poursuivre et se densifier dans les prochaines années. Dans un environnement où la très grande majorité des jeunes parents n'est pas bascophone, la transmission de la langue au sein de l'école et des structures de la petite enfance reste, dans le respect du souhait des familles, le principal vecteur contre le déclin de la langue.

La politique linguistique en faveur de la langue basque pourra d'autant plus être confortée dans ce sens, que cette 4^e enquête sociolinguistique confirme une attente de la population supérieure à l'offre de services aujourd'hui proposée.



Laugarren inkesta soziolinguistiko horren emaitzek bi berezitasun agerian uzten dituzte : batetik, euskararen egoera larria dela, euskararen galerak jarraitzen baitu Iparraldean, eta bestetik, itxaropenerako seinale batzuk badaudela, joera aldaketa bat gertatzen baita gazteekin. Etorkizunari begira, bi erronka nagusi nabaritzen dira :

Belaunaldi gazteetan gertatzen den euskararen berreskuratzea berretsi eta azkartu.

70 eta 80. hamarkadetan sortu diren pertsonen hizkuntza-gaitasunak arunt maila apalekoak ziren, adin-tarte bateko %15-a baino gutxiago.

2006an agertzen den aldaketa-joeraren ondorioz, 90. hamarkadan sortu diren gazteen hizkuntza gaitasuna, 60. hamarkadan sortutako pertsonenaren antzekoa da.

Aitzinatze hori, eskola sare guzietan izan den euskarazko irakaskuntzaren garapenaren ondorioa da, zalantzarik gabe.

Hala ere, hori izan eta ere, 16-24 urte artekoen elebidunen ehunekoa (%16.1) ez da nahikoa euskararen biziraupenaren segurtatzeko.

Ezinbestekoa da euskararen irakaskuntza garatzen segitzea eta zabaltzea heldu diren urteetan. Burraso gazteak nagusiki euskaldunak ez diren egoera batean, eskola eta lehen haurtzaroko egituren bidezko transmisioa, euskararen biziraupena segurtatzeko tresna egokienak dira, beti ere familien borondateak errespetatuz.

Euskararen aldeko hizkuntza politika zentzu honetan egonkortu beharko da, kontutan hartuz gainera laugarren inkesta soziolinguistiko horrek agerian ematen duela gizarteak duen nahikeria eta eskaera, gaur egungo eskaintza baino handiagoa dela.



Faire en sorte que les nouveaux locuteurs soient des locuteurs complets, qu'ils atteignent un niveau suffisant pour pouvoir utiliser et, un jour à leur tour, transmettre la langue.

Une donnée est commune aux trois territoires définis dans l'enquête :

- parmi les bilingues, la proportion de bilingues plutôt francophones/hispanophones est la plus importante dans la classe d'âge la plus jeune, celle des 16-24 ans


Ceci est particulièrement vrai pour le Pays Basque de France.

Cette donnée a une conséquence directe sur l'utilisation de la langue.

L'enquête montre que deux facteurs principaux conditionnent l'utilisation de la langue basque :

- la densité de bascophones dans le réseau relationnel,
- la compétence linguistique en basque relativement au français.

Hizkuntza gaitasuna erlatiboa Iparraldean, adinaren arabera
La compétence linguistique relative par classe d'âge en Pays Basque de France




Hiztegia

- Euskal elebiduna : euskaraz erdaraz baino hobea go moldatzen den pertsona
- Elebidun orekatua : euskaraz eta erdaraz berdin moldatzen den pertsona
- Erdal elebiduna : erdaraz euskaraz baino hobea go moldatzen den pertsona

Glossaire

- bilingue plutôt bascophone : personne ayant plus d'aisance pour s'exprimer en la langue basque
- bilingue équilibré : personne ayant la même facilité d'expression en basque et en français
- bilingue plutôt francophone : personne s'exprimant plus facilement en français



Hiztun berri horiek "hiztun osoak" izanen direla segurtatu, beharrezko gaitasuna lor dezaten euskara erabiltzeko eta, egun batez, izkuntzaren transmititzen gai izateko.


Hiru lurraldeetako emaitzek datu bat badute amankomunean :

- elebidunen artean, elebidun erdaldunen ehunekoa handiena da, adin-talde gazteenean, 16-24 urte arteko adin-tartea

Are gehiago Iparraldean.

Datu horrek zuzenki eragiten du hizkuntzaren erabilerarengan. Inkestak frogatzen du, bi faktore nagusik baldintzatzen dutela euskararen erabilera :

- Hiztunaren harreman-sareko euskaldunen dentsitatea,
- Hiztunak hizkuntza batean edo bestean mintzatzeko duen erraztasuna.



Beraz, hiztun gazteak geroz eta gehiago badira, aldiz, beste adin-taldeko hiztunek baino erraztasun gutxiago daukate euskaraz hitz egiteko. Ondorioz, erran dezagun beraien hizkuntza-gaitasuna ahulagoa dela.


Eskola bidezko irakaskuntzaren sendotzea eta eskolaz kanpo euskara erabiltzeko aukeren garatzea, ezinbesteko tresnak dira, hiztun berriek, euskara ezagutzeaz gain, erabiltzeko parada ukan dezaten.

Ainsi, les jeunes locuteurs, si ils sont de plus en plus nombreux, possèdent par contre comparativement aux bilingues des autres classes d'âge une compétence linguistique relative moindre et par voie de conséquence une aisance et une capacité à s'exprimer en langue basque plus fragile.

La consolidation du processus d'apprentissage à l'école et le développement des possibilités de pratique de la langue en dehors du cadre scolaire constituent dans ce domaine deux leviers stratégiques importants pour qu'au-delà de la maîtrise de la langue, les nouveaux locuteurs puissent aussi la pratiquer.

Gauzatu behar den hizkuntza politika proiektu bat


Un projet de politique linguistique à mettre en oeuvre



2006an, EEP-k eraturako Hizkuntza Politika Proiektuak helburu nagusi bat "hiztun osoak" eta lehentasun bat "belaunaldi gazteak" finkatzen zituen, egoera soziolinguistikoa oinarritzat harturik.

Ondoko inkestetan, frogatu beharko da, Hizkuntza Politika Proiektu honen gauzatzeak egiazko ondorioak eragiten dituela egoera horretan.

Le Projet de Politique Linguistique de l'OPLB adopté en 2006 autour d'un objectif central "des locuteurs complets" et d'un cœur de cible "les jeunes générations" avait été conçu en prenant en compte les réalités du contexte sociolinguistique. Il conviendra de vérifier que sa mise en œuvre produise sur cette même réalité des effets perceptibles lors des prochaines éditions de l'enquête.







Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la langue basque
Platanondoen etorbidea, 2 - 2, allées des Platanes
64100 Baiona - Bayonne
Tél. 05 59 31 18 34 / Fax 05 59 31 07 81 / Courriel : eep-oplb@mintzaira.fr